

## ELHEKETA : ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

1. Piarresen bihotzmina eta emazteen xituna.
2. Paxkal nolakoa zen?
3. Era Martin zer gizon zen.

## (II) PIARRESEN GALTZAK 3

Gaixo Piarres!... Hiru aldiz hain ongi moxtuak izan ziren galtzak soinean, hantxet zagon, bere ohearen aintzinean, begia gasna bezen zuri egina, ahoa gisu labea bezenbat idekia. Bularrok, besoak hunki<sup>1</sup> eta hunki ari zen, *bura othe zenez* bere buruari galdeka, ala ametsetarik<sup>2</sup> ari zen, harritua. Galtzak, bere galtza ederrak *belhaunetarat* ere ez zitzaizkon heltzen, eta, Miarrizen, erdi hiluzirik, itsasoan mai-natzen diren herrementa<sup>3</sup> hetarik bat iduri zuen osoki. Ahezkoan ere galtza luzeagoak ibiltzen dire, eta lehenagoko Eskualdun baten pareko egina zen Piarres...

...Sukarra jauzirik hantxet bercan, ohean eman zen Piarres dohakabea. Ezteietako bixkotxak jateko orde, purga iresten, tigana edaten arizan zen hiru<sup>4</sup> egunez, eta *Darius* zena, Donia-  
medikua bizi baitzen oraino, lanik aski izan zuen jaun horrek Piarres gaizoaren salbatzen.

Joana, Maria eta Kattalin, xitun aski egon zuten, zonbait egunez, eta Ixabel dendariak, egundaino geroztik, ez zuen Jaun Meraren galtzarik josi.

## ANPALLATZERAT... MARTIN?

Nor othe zen hobendun, ait'amek ez balinbazakoten liburueta eta kazetetan irakurtzen erakutsi? Noren hoben othe zen, *Paxkal* plaza-biltzale<sup>5</sup> debruz egin harek, zer nahi gezur balinbazazkon sinhetsarazten? Gezur horiek iresten zituen, hala da, mazapen puska batzu bezala. Bainan hala hala, inguru hetako zazpi herriean ez zen golde-nabarria harek bezain xuxen eta barna erabiliko zuenik. Kabalakina<sup>6</sup> ere zen lehen lehera... Bainan, *Paxkal* figura<sup>7</sup> harek burua azpir goiti ezar-n zakon, bere maltzurkeriekin.

Goiz batez, *Martin* athera zen karrikara, pinpirinan<sup>8</sup> aldatua. Banpa, banpa bazoan bideari behera, bere alimaleko zapata itzedunak oinetan. Esposeko jauntziak emanak zituen: pezako<sup>9</sup> jaka, pezako galtzak, barneko motxa<sup>10</sup> dena ttitta<sup>11</sup> gorri eta pherde. Gerriko zintak egiten ziozkan hiru inguru segurik, gorri gornia, gírgilleriak<sup>12</sup> sahetsetik dilindan. Gerrikoaren azpian, aintzinetic, gaitzeko botoin bat, ezpel xuri xuriz egina, erdiko sakela handiaren hesteko. Athorra xuria, hamabi plegu xeherekin, ithotzeko heinean beharrietaraino heltzen zitzaiona. Buru kaskoan, bonet edo kapelu beltz bat, onjo zabala iduri, ile kozkor batzuen gainean.

Banpa banpa bazoan beraz Martin, karrikari behera. Bazzterrat behatu balu, zerbaitz jelostuko<sup>13</sup> zen behar bada. Bainan, athorra-lephoaren erdian egoiteak ere lanik aski emai-tzen zakon, eta ez zuen Paxkal bere adixkidearen irri maltzurrik ikusi.

Joan, joan, azkenean heltzen da *Muziú Fort* zenaren etxe aintzinerat.

## (III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Ez zitzaizkon
  32. Balinbaza koten
  33. Egeten ziozkan
  34. Behata balu.
31. IZAN Régime négatif Ind. Imparfait
- Hek zirea = ils étaient  
Hek = eux zitzaizkitan = ils se étaient  
zitzaizkizun = il vous étaient  
zitzaizkion = ils lui étaient  
zitzaizkigun = ils nous étaient  
zitzaizkezun = ils vous étaient  
zitzaizkiezun = ils leur étaient

32. UKAN Conf. perip. à double compl.

HARI = A LUI O.S.-ET P.

- Nik neon (zakon) = je le lui avais  
Zuk zinon (zakon) = vous le lui aviez  
Harek zion (zakon) = il le lui avait  
Guk zinon (zakon) = nous le lui avons  
Zuek zinoten (zinakotan) = vous le lui aviez  
Heiek zioten (zakoten) = ils le lui avaient
33. HARI = A LUI Obj. plur. C.I. plurid.

- Nik nizkion = nizkon = niozkan = je les lui avais  
Z. zinikion = zinakon = zinokan = vs les lui aviez  
H. zizkion = zizkon = zizkan = il les lui avait  
G. ginikion = ginakon = ginokan = ns les lui avion  
Z. zinikotan = zinakoten = zinokaten = vs les lui aviez  
H. jezikotan = zazkoten = ziozkatet = ils les lui avaient  
Neri = à moi. O.P. C.I.P. (pour membre)

- Zuk zinazkitan = vous me les aviez  
Harek zaugkitan = il me les avait  
Zuek zinazkidaten = vous me les aviez  
Heiek zaugkidaten = ils me les avaient